Ekintzara pasa edo ez, hori da koska

Hiru taldek bat egin dute «gaurko eta hemengo Hamlet bat» eskaintzeko

Xabier Mendiguren Elizegik egin du testu klasikoaren egokitzapena, eta Donostian lau egunetan zehar ikusi ahal izango da, bihartik hasita

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Hamlet gaur eta hemen. Honela laburbil daiteke Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki-taldeek egin duten 'Hamlet' klasikoaren moldaketa berria. Gaurko garaietara eta Euskal Herrira ekarri dute istorio klasikoa, lehengo espirituari eutsiz, baina testua guztiz berrituz. Eta testu berriaren idazketaz Xabier Mendiguren Elizegi arduratu da, antzerki-testu askoren egilea.

Gai handi asko ukitzen ditu antzezlanak: maitasuna, familia, adiskidetasuna, gorrotoa, boterea, justizia... Eta halako batean galdera hau planteatzen du: justiziarik eza dagoen egoera bortitz batean, zer egin behar da: ekintzara pasa, indarrez erantzun?

Ez da lehenengo aldia Iparraldeko talde hori eta Hegoaldeko beste bi horiek elkartzen direna. 'Errautsak' antzezlana ere hiruren artean egin zuten, eta obra horrek 2011ko Donostia Antzerki Saria irabazi zuen, gainera.

«Bagenekien oraingoan ez genuela 'Arrautsak-Bi' bat egin behar. Hura erabat garaikidea zen, punkia, oso kañeroa, belaunaldi baten historia agertzen zuena. Eta behin, aktore batek esan zuen: zergatik ez Hamlet? Halaxe ekin genion», esan zuen Ximun Fuchsek atzoko aurkezpenean. Hain zuzen ere, Le Petit Théâtre de Pain taldeko kide honek egin ditu oraingoan zuzendari-lanak.

HAMLET
ARTEDRAMA, LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN, DEJABU PANPIN LABORATEGIA
Tokia: Gaztezszena (Egiako auzoa, Donostia).
Egunak: azaroak 7, 8, 9 eta 10, gaueko 8etan.
Sarrera: 10 euro.

Ximun Fuchs zuzendariaren esanetan, «indar metaketa bat gertatu da hemen, gure hiru taldeen artekoa, metaketa artistiko eta ekonomikoa».

Zuzendariak gogorarazi zuen Hamlet pertsonaiari buruz hamaika teoria daudela: «Batzuek esan zuten lehen protestantea izan zela, juztiziarekiko harreman berri bat proposatu zuelako. Beste batzuek judu bat zela, edota homosexuala zela. Izan ere, ama nahi zuen hil, eta neska-laguna komentura bidali. Badira esaten dutenak emakume izan zela, edota lehen komunista, lehen troskista. Gure Hamlet hau, berriz, gaur egungo euskaldun gazte bat da, eta gerla aipatzen da. Hamlet azaltzen denean gerla bukatua da, baina ikusten da badatorrela beste bat. Zein gerra den ez da zehazten, hala ere».

«Ohartu ginen Hamletek gure egoeraz hitz egiten zuela asko. Shakespearek Danimarka aipatzen du, baina seguru aski sekula ez zuen lurralde hori ikusi. Aken finean, metafora bat zen, bere herriaz mintzatu ahal izateko distantzia piska batekin».

Ander Lipus aktorea, berriz, honela mintzatu zen: «Hilaren lehenengoan estreinatu genuen obra, Luhuson, eta hiru emanaldi izan ditugu. Noski, pozgarria da Donostian lau emanaldi izatea. Behin, bati irakurri nion berari Hamletek bihotza bahitu ziola. Oso ondo esana».

Xabier Mendigurenek idatzi du bertsio berria. «Desafio bat da 'Hamlet' egitea. Egin genezakeen testua bere horretan utzi, edo aprobetxatu dagoen euskal bertsioa, baina pentsatu genuen hori baino gehiago egin behar genuela. Eta, halaxe, moldapen bat egin dugu. Lehengo astean izan zen estreinaldia, izan dira emanaldi batzuk, eta adi egon naiz sare sozialetan zer esaten zuten. Gustatu zait Azpeitiko batek esandakoa: 'Hau gaur egungo tragedia bat da'». Eskarmentu handiko antzerki-idazlea da Mendiguren. 1987an publikatu zituen bere hiru lehenengo lanak arlo honetakoak –'Kanpotarrak maisu', 'Kultur ministrariak ez digu errukirik' eta 'Publikoari gorroto'– eta hirugarren hori berriro jokatu da orain denbora asko ez dela, aktore-lanean 'Hamlet' gaurkotu honetako zenbait aktore jardun direlarik.

Antzezlaneko protagonistak gaur egungo hizkeran moldatzen dira, baina Xabier Mendigurenek egin dizkio keinu batzuk Shakespeareri. Nolanahi ere, testua adostea ez da gauza erraza izan. «Talde-lana izan da. Ni ez nengoen ohituta. Bi-hiru idazketa baino gehiago egon dira», esan zuen idazleak atzokoan.

Zazpi aktore, hogeitaka pertsonaia

Aktoreak zazpi dira, baina protagonistak askoz gehiago, hogeita bost bat. Eta aktoreetan, protagonismo berezia dauka Ander Lipus markinarrak, Xabier Mendigurenen 'Publikoari gorroto' hartan paper nagusia jokatu zuen aktore bera. Beste aktoreak Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo dira.
Argiztapenak garrantzi berezia dauka 'Hamlet' honetan, eta arlo horretaz Josep Duhau arduratu da. Musika, berriz, Asier Ituartek konposaturikoa da.

Aurrean, Ander Lipus, Irantzu Azpeitia eta Xabier Mendiguren; atzean, Urko Redondo, Ximun Fuchs eta Nando Piñeiro. :: USOZ

BAI HORIXE
PELLO ESNAL

DENA

Munduko zenbait hizkuntzak ez omen zuen hitzik zer eta **dena**, **guztia** eta **oro** izendatzeko. Agian, euskarak berak ere ez omen zuen izango. Horrexegatik izango ditu gaur hiru: aipatu berri horiek.

Usteak uste, entzunak ditugu joan den astean hiru hitz horien oihartzunak. Ostiralean, Santu **guztien** eguna ospatu da han eta hemen. **Omia**saindu eguna deitzen diote Iparraldean. Tarteka gertatu ohi da: hiru aukera nahiko ez, eta laugarrena behar; kasu honetan, latinezkoa. Bestalde, Deun**oro** izena proposatu zuten Koldo Elizaldek eta Sabino Aranak, gaztelaniazko Santos izenaren ordainetan.

Dena hitzaren oihartzun betea, berriz, larunbatean iritsi zitzaigun. Hildakoen eguna izaki, hor bota du adiskide batek galdera lagunartean: eta hil ondoren, zer? Eta beste batek erantzun: dena.

Isilik gelditu ginen. Eta isiltasun hori baliatu zuen bigarren lagun horrek erantzuna luzatzeko.

Heriotza hitzaren –eta honen esanahiaren– kontrakoa ez omen da **bizia**; **jaiotza** baizik. Eta jaio den orok hil behar omen du. Baina gu jaio aurretik ba omen zen bizia; eta hilda gero ere izango omen da.

Eta bizia zer da?, izan zen hurrengo galdera. Lehengo erantzun bera eman zigun lagunak: dena. Eta esan zigun, gainera, bi esanahi hartu ohi dituela euskaraz **dena** horrek: batetik, **guztia** eta **oro** ordainkideena; bestetik, erlatibozkoa, gaztelaniazko **lo que es** delakoaren ordaina.

–Eta horrekin zer esaten ari haiz? Dena izan ginela jaio aurretik eta dena izango garela hilda gero?

–Horixe bera. Baina nola ulertu **dena** hori? Agian, lehenaldi hartan bezala. Orduan, izan ere, bat eta bera izango zituan, euskaraz behintzat, **dena** hitzaren bi esanahiak.